


Astekaria

# BARREN

elgoi



ELGOIBARKO MERKATARI ETA ZERBITZU ELKARTEA

## LAU HANKATAN

3 "Ez du balio kasu honetan errua gizarte patriarkalari, bla, bla, gizonetzko matxistei, etabar, etabar, leporatzeak, gu denok gara partaide bidea ematen diogun momentutik". **Diana Perez de Albeniz**

6 **ERREPORTAIA:** UDALA, EMAKUME TALDEA ETA HAIZEA ELKARLANERAKO PREST.

Talde hauen helburu nagusiak, herriko bizitzan emakumearen parte hartzea bultzatzea arlo ezberdinetan emakumearen egoera ezagutzea dira.

10 **ARRAZOIAK ERDIBANA:** ZER IRITZI DAUKAZU ABORTOARI BURUZ?

**Rosi Santamaria**

Emakumeak bere gorputzarekin zer egin erabakitzeke eskubidea du eta inork, ez du besterik erabakitzeke eskubiderik.

**Blanka Salegi**

Errespetu osoa beharko litzateke izan bestean erabakientzat eta abortoa antisorgailu bat bihurtu ez dadin lana egin.

16 **BERBETAN**

"Bezeroek oso ondo onartu naute". **Jema Jaio.**

18 **KIROLA:**

GAIA: POLIKIROLDEGIA

ELKARRIZKETA: SABIN BERISTAIN

"Motorzaleak beti gaude laguntzeko prest".

20 **ELKARTEETATIK BUELTAN**

KALAMUA ELKARTEKOAK, HERRI KIROLETAN ZALETUAK.

ERREZETA: Berdura menestra.

21 **KULTURA**

HIRU ARTISTA BERGARAREN LANAK ELGOIBARREN

## PREMAZKO TELEFONOAK

### OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak .....	741155
Txanda hartzeko .....	743354
Alkoholiko Anonimoak .....	742950
D.Y.A (anbulantzia) .....	464622
Gurutze Gorria .....	743864
Mendaroko Ospitala .....	756264
Drogomenpekotasun Zerbitzua (Anbulatorioa) .....	743936
Odol Emaileen elkarte .....	741190

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak .....	740442
PESA (Eibar) .....	112131
Taxi Geltokia .....	740898

### UDALA

Euskara Zerbitzua .....	744366
Kultura eta Kirol Zerbitzua .....	742158
Ongizate zerbitzua .....	743736
Udaletxea .....	741050
Udaltzaingoa .....	741394

### BESTELAKOAK

Caritas .....	740142
IMI .....	741196
Kontsumo Bulegoa (OMIC) .....	743088
Liburutegia .....	743525
Musika Eskola .....	742145
Polikiroldegia .....	741361
Postetxea .....	741547

### HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza .....	740296
Zaharren Biltokia .....	740526

### IKASTETXEAK

Herri eskola .....	74 08 79
I.M.H. ....	74 41 32
Institutua .....	74 02 67
Ikastola .....	74 27 00
L.H.I. ....	74 31 00
Pilar Ikastetxea .....	74 13 31

## KOMIKIA



**elgoiBARREN**

**Argitaratzailea**  
Elgoibarko Izarra  
Kultur Elkartea  
☎ 74 16 26

**Laguntzailea**  
Elgoibarko Udala

**Zuzendaritza**  
Itziar Agirregomezkorta  
Alberto Agirreazaldegia

**Hizkuntza Arduraduna**  
Anjel Ugarteburu

**Erredakzio kontseilua**  
Iñaki Arrieta, Antton Bergara, Edurne Bilbao, Rosa Iriondo, Jose Inazio Sarasua

**Kazetaria**  
Ainhoa Lodoso

**Maketatzailea**  
Maite Rementeria

**Publizitatearen diseinua**  
Luis Mari Zubiaurre  
Maite Rementeria

**Publizitatea**  
Amaia Leiaristi

**Kolaboratzaileak**  
Myriam Aldazabal, Alberto Ansuategi, Isabel Ansola, Joxin Arregi, Belen Arrizabalaga, Agur Miren Barandiaran, Lorea Gorostiaga, Jon Eugi, Hasier Etxeberria, Maite Iriondo, KOKOE, Aitor Lodoso, German Meabebasterretxea, Susana Mugika, Jasone Osoro, Diana Perez de Albeniz, Lorea Perez de Albeniz, Andoni Rementeria, Eduardo Sanz, Aitor Zabaleta.

**Banaketa arduradunak**  
Imanol Larrañaga  
Inaxio Garmendia

**Helbidea**  
Nafarroa enparantza 2  
☎ 74 41 12

**Inprimategia**  
Gertu koop. E.  
(Zubillaga Oñati)

**Tirada**  
3.000 ale

**Lege gordailua**  
SS-1.025/92

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**L**AU HANKATAN



Diana Perez de Albeniz

**Uztailean jasoko duzu azaroan botatako hazia**

**Z**uzena da gehienetan batek erein duena jasotzen duela, eta inork ezer gutxi ematen digula gure kasa eskuratzeko gogor ibili ez bagara.

Egun, derrigor adierazi beharreko itxura sozial bat bailitz, emakumeen gizonekiko berdintasuna denon ahotan dabilela, gure lanerako eta ez dakit zenbat gauzatarako gaitasuna gorai patzen dela, ustez pisu gutxiko eta denborak aldatuko dituela oker suposatzen diren puntu ilunez osaturiko moral bikoitza elikatzen dugu gure artean. Eta gurasoek alaba karrera ikastera bidaltzen dute lan munduan gizonezkoak baino gutxiago izan ez dadin, baina etxeko lanetan aritzea ere exijitzen zaio, semeari ez bezala, eta aitaren platera mahaian zerbitzatzea eskatzen, amari legez; bortxaketak salatzen ditugu, baina senarraren eskutan jipoituriko txistearekin parre egiten dugu; ohean pasiba

izan ez gaitzen primeran jasotzen dutenak, kikildu egiten zaizkigu sexuan benetako iniziatiba azaltzen dugunean.

Eta ez du balio kasu honetan errua gizarte patriarkalari, bla, bla, gizonezko matxistei etabar etabar leporatzeak; gu denok gara partaide bidea ematen diogun momentutik. Kanpotik apaindu aurretik hobe barrua txukundu, eta kalera garraisika irten baino lehen, hobe etxekoa konpondu. Hau ez da inoren aurkako borroka, bakoitzaren buruaren kontrakoa ez bada. Gu geu prest al gaude ezer aurrera eramateko, arrakastako pisua arindu aurretik? "Zaila honezkero, oso barneratua dauka horrela jokatzea, latza litzateke norbere etxean horrelakoetan ibiltzea..." Ja! Agian, oraingo honetan zailenetik hasi behar. Ez dakidala etor inor niri behintzat oraina ikutu gabe geroa aldatuko, eta gizartea itxuraldatuko duela esanaz, etxean berdin jarraituz.

**DEKORAZIOA**



**PROIEKTUAK  
ERREFORMAK  
ALTZARIAK  
OPARI GAIK**

Santa Ana 2 Tel: 74 35 09



San Bartolome 9 ☎ 74 07 44

**Bizikleta eta beldurra**

Duela gutxi gertatu zaidan gertaera baten haritik, salaketa ireki bat egitea pentsatu dut.

Salaketa honek ez du inolako kutsu ekologikorik edota kotxeen kontrako mezurik. Ez nago kotxeen kontra, nik neuk ere badut bat, eta beharrezkoak direla iruditzen zait.

Bizikleta eta bizikletazaleokin kotxegidari askok erakusten duten errespetu eza eta axolagabekeria salatzea da nire nahia.

Astearte eguerdia zen bizikleta hartu eta Debarantz abiatu nintzenean. Ordu horretan, normala den bezala, trafikoko ugaria eta presaka gehientsuenak. 300 metrotako rekta batetik nindoalarik, laupabost kotxe zetozen aurkako norabidean; bapatean atzeko aldeko kotxea besteak aurreratzen hasi

zen, horretarako ezkerreko bidea oso-osorik okupatzen zuelarik. Tramo horretan arzenik ez dagoenez, kotxea gainera zetorkidala ikusi nuen, baina, niregana iristeko 50 bat metro falta zirenez, frenatu edota bere tokira bueltatuko zela pentsatu nuen. Bai zera! Abiadura handitu eta bozina joka hasi zen Fiti-paldi arraioa!

Egia esan, ez dakit nola libratu nintzen, tramo horretan ez baitago bi kotxe eta bizikleta batentzat beste tokirik. Gogoan dut kotxea ziztu bizian somatu nuela aldamenetik pasatzen, ondoren, uraren erretenetik hamar bat metro egin eta gero, errepidera bueltatzea lortu nuelarik. Ez dut sekula Mendaroko ospitala hain hurrean ikusi!

Dagoeneko kotxegidari bat baino gehiago ariko da ahopean bizikle-

ta zaleongatik maldizioa: ez garela ilaran joaten, ez diegula bozinei kasurik egiten,... ez dut esango hauek egiak ez direnik, askotan bizikletazaleok ere ez gara zuzen ibiltzen. Baina, ohartu al zarete inoiz batzuen eta besteen okerreko ibilerek zein ondorio ekar ditzaketen?

- Kotxe-gidari entzat, kasurik txarrean, kintatik segundara jeitsi eta piska bat beranduago iristea suposatzen du.

- Bizikleta zaleontzat, berriz, kasurik onenean ostia eder bat hartu behar. Txarrean zer datorkigun ez dut aipatu nahi, denok ezagutzen baitugu hamaika adibide.

Ez da nire asmoa kotxe gidari guztiak salatzea. Baina beldur naiz beldur naiz errepidea beraiena dela uste duen guk uste eta nahi baino

kotxe gidari gehiago ez ote dagoen.

Errepidea guztionan denez, kotxe bat aurreratzean paretik bizikleta bat badator (eta errepideak ez badu hirurak eroso pasatzeko baldintzarik betetzen) zeuen tokira bueltatu behar duzue.

Beste eguneko gidariarekin eta hura bezalakoekin, bazterra noiz joko zain gelditu beharko dugu bizikleta zaleok. Bitartean, errepidera irtearen garen bakoitzean beldurra aldean eraman beharko dugu.

Luma gehiegitxo zorroztu dudala esango duenik ere izango da, baina inoiz ezingo du kotxe hark jo izan banindu besteko minik eman.

**Imanol Larrañaga**



**AHOLKULARITZA**

- . KONTABILITATEA
- . AHOLKULARITZA FISKALA
- . LAN AHOLKULARITZA
- . ALLIANZ ERCOS ASEGURUAk
- . MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAk

San Bartolome 1 behea. Tel: 74 26 74- 74 02 34. Fax: 74 21 29

*Orain Nafarroa enparantza Zangozalde*  
☎ 74 41 12

**KEMEN**  **Belardenda**  
**MEDIKU NATURISTA-AKUPUNTURA-PISUAREN ZAINKETARAKO TERAPIA-MASAJEA ETA REFLEXOTERAPIA**  
San Bartolome 26. Tel: 74 40 31

1963-64 Euskara berpiztu nahi genuen.



1987-88 Euskara indartu nahi genuen.



1993-94 Euskaldun eleanitzak nahi ditugu.



# UDALA, EMAKUME TALDEA eta HAIZEA elkarlanerako prest

**Emakumeak gogor borrokatu behar izan du bereak diren eskubideak lortzeko. Gaur egun, emakumearen egoera arlo guztietan, duela urte batzuetakoarekin konparatzerik ez badago ere, oraindik emakumea eta berarekin lotutako hainbat arlo hobetu daitekeela eta hobetu**

**L**au talde ezberdin hauek, premiazkoa kontsideratu dute ezer baino lehen Elgoibarko emakumearen egoera nolakoa den ezagutzeari. Horrela, aurtengorako duten lana, gure herriko emakumeari buruzko azterketa sakona egitea da. Azterketa honen bidez, emakumearen egoera eta beharrak zeintzu diren jakin ondoren, talde hauek datorren urterako hainbat ekintza (ikastaroak, hitzaldiak...) prestatuko dituzte. Elgoibarko emakumeengan somatzen diren ezak edo hutsuneak betetzen saiatzea da plan-gintza honen izatea.

Talde hauen helburu nagusiak, emakumearen parte hartzea herriko bizitzan bultzatzea eta arlo ezberdinetan emakumearen egoera ezagutzeari dira.

Oraingoan, martxoaren 8an emakume langilearen nazioarteko eguna ospatzen dela eta, zenbait ekintza prestatu dituzte: antzerkia, zinea eta "lana

eta emakumea" gaiari buruzko hitzaldi bat.

Talde bakoitzaren iritzia eta helburuak ezagutu nahiean mahai baten inguruan bildu ditugu. Hona hemen beraiek esandakoa:

## **Udaleko Ongizate Zerbitzua**

Lorea Vila eta Ama-  
goia Ruiz de Gaunak premiazko egoeran dauden emakumeen kasuekin egunero topo egiten dutela adierazi zuten. Baina emakumearen arloa ez da horretara soilik mugatu behar. Ongizate sailean egoera larrian dauden pertsonekin lanean ohituta daudenez, "emakumearekin orokorrean aspalditxotik lan egiteko gogo geneukan. Emakumearen autoestima eta haren

**"Emakumearen gaia Ongizate sailak bakarrik ezin zuela gestionatu erabaki genuen".**

behar direla uste duen asko dago. Hori dela eta, Elgoibarko Udaleko Ongizate Sailak, Kultur Zerbitzuak, Emakume Taldeak eta Haizeak, lehendabizikoz bat eginez, emakumearen alde lan egiteko asmoa dute.

heziketari batez ere, gauza asko egiteko dagoela ikusten dugu". Horrela, pasa den urteko azaroan, EMAKUNDEk emakumearen gaiarekin sentsibilizatuta zeuden Udalletako Sail ezberdinei bilera batera deitu zien. "Bertan, emakumearen gaia lantzen zutenak Ongizate Sailekoak bakarrik ez zirela ikusita, hau da, herri askotan Udaleko Kultura sailak ere parte hartzen zuela ikusita, Elgoibarren ere Kultura Zerbitzua inplikatzeari genuen helburu. Kultura, Kirol eta Euskara Zerbitzuekin hitzegin ondoren, emakumearen gaia Ongizate Sailak bakarrik ezin zuela gestionatu erabaki genuen". Honela, Kultura Zerbitzua Ongizate Zerbitzuekin batera lanean hasi zenean, herriko talde ezberdinek ere zeresana bazutela pentsatu zuten. Haizea eta Emakume Taldearekin kontaktuan jarri eta emakumearen inguruan ikerketa bat egin beharra

zegoela ikusi zuten.

## **Emakume Taldea**

Regina Isastik eta Arantza Aldazabalek azaldu zigutenez, beraien ustetan, emakumea jaiotzen denetik bigarren mailan dago, "eskolan adibidez, historia liburuetan ez da emakumerik apenas aipatzen; familian, emakumea beste guztien esanetara dago..."

Sistema patriarkal batean bizi izatearen arrastoak ezabatu beharra azpimarratu zuten Emakume Taldekoek. "Ema-

**"Emakumeak lan munduan aukera izan dezan, etxeko lanetatik askatu behar zaio".**

kumeak horretaz ohartu eta hori aldatzen saiatu behar du. Funtsezkoa da emakumeak kontzientzia hartzea".

Emakume Taldekoek horretarako lan egiteko asmoa dutela adierazi



↳ Ideologi eta iritzi ezberdinetako taldeak elkartu dira helburu bakar batekin: emakumea.

zuten. "Emakumeak lan munduan aukera izan dezan, etxeko lanetatik askatu behar zaio. Baina etxeko lan horiek betetze-ko zerbitzuak falta dira: haurtzaindegiak..."

Bestelako zerbitzuetan ere falta izugarria dagoela aipatu zuten: "famili antolapidetza badago, baina ginekologorako txanda hiru hilabetera ematen dizute".

Emakume Taldekoek, bestalde, bortxaketak, tratu txarrak eta horrelako ekintza bortxatzaileak salatu daitezela lan egiteko asmoa dute. "Gure lana hortik bideratuko dugu".

### **Kultur Zerbitzua**

Emakumea gizartean integratu beharra dagoela azpimarratu zigun Blanka Salegi, Kultur teknika-

---

### **"Kultur mailan emakumearen parte hartze ezak sortutako hutsunea betezea funtsezkoa da".**

---

riak. "Orain arte, emakumeari begira gauza gutxi egin da kultur arloan. Emakumearekin lotutako gaiak gutxitan jorratu dira, eta horrek ez du esan nahi beharrik ez dagoenik". Orain arte Haizea ibili da emakumearen inguruko arazoak lantzen, baina, batez ere, osasunaren aldetik planteatuta. "Hori oso ondo dago baina horrezaz gain, emakumeak badu bestelako beharrik. Behar kulturalak esaterako". Kultur mailan emakumearen parte hartze ezak sortutako hutsunea betetzea

funtsezkoa da kultur Zerbitzuko Blankaren ustez. Heziketan ere lan asko egin beharra dagoela diosku Blankak. "Oso garrantzitsua da arau sozial berdinkorrenpean umeak hezitzea, hizkuntza ez sexista erabiltzea... Kulturaren gauza asko dago egiteke".

### **Haizea**

Feli Garitagoitiak ez zuen mahainguruan gurekin egon ahal izan baina, bere iritzia helarazi digu idatzi baten bidez. Feliren ustetan, Elgoibar, ekintza kulturalen aurrean erantzun eskasa duen herria da. "Baliteke tradizio ezagatik izatea, edota, instituzioek ez dituztelako ekintza horiek bere osotasunean subentzionatzen. Honekin dei bat luzatu nahi nieke Udala,

Emakunde eta Aldundiari zerbait egin dezaten arlo horretan". Dena den, Feliren ustez, Elgoibarren ez da inoiz erantzun handirik jaso edozein ekintza antolatu izan denean. Halere, pertsona bakar batek etekinik aterako balu, Haizearen aldetik,

---

### **"Haizeak, hitzaldiak eta zine forumak antolatzen jarraitzeko asmoa du, momentuz osasunaren gaiari helduko diolarik" ..**

---

helburua beteko litzateke. Datozen urteotarako Haizeak osasunaren inguruan lan egiten jarraitzeko asmoa du, hitzaldiak, zinea eta horrelakoak antolatuz.

# Herri Eskola

## Haur Hezkuntza eta O.H.O.



### ESKEINTZA:

- ⇒ Murgiltze Plana: Eredu euskaldunak: D eta B.
- ⇒ Gela bereziak: Informatika, laborategia, ikusentzutekoa, bideoa, liburutegia, gimnasioa, plastika, heziketa berezia...
- ⇒ Ingelesa 3. mailatik aurrera.
- ⇒ Gelaz kanpoko ekitaldiak: Aterpeak, Baratzeko ingurugiro Hezkuntza zentrua, Pagoetako Parkea, bestelako irteerak...
- ⇒ Eraikuntza moderno eta leku egokian kokatuak: Jolastoki ederrak eta ongi gordeak.

### ZERBITZUAK:

- ⇒ Jangela aparta: bertan prestaturiko jakiak. Subentzionatua. Menu egoki eta merkeak.
- ⇒ Dohako garraioa inguru guztietatik.
- ⇒ Pedagogi Aholkularitzategia (Eibarko P.A.T.).

### GONBIDAPENA

*Datorren larunbatean, martxoak 13, gure eskolan egiten diren ekintzak eta funtzionamendua erakutsi nahi dizuegu.*

*Egun honetan irakaskuntza era diapositibetan, bideoak, kirolak... eta jolaserako puztutako gaztelu bat ere ikus ahal izango duzue.*







AZKUE

**A**ste honetako erretratua Mari Karmen Azkue laga digu. 1962. urtean, Plaza Txikian ateratakoa da. Ikus dezakezuen bezala, elurtea ez zen nolana hikoa izan eta bazterrak ondo zurituta azaltzen zaizkigu.

Ohartu al zarete lehengo eta oraingo elurretako arrokek ez dutela inolako zerikusirik? Erretratu zuri-beltzean bada ere, garbi dago bufanda eta txano pare bat ezik, gainontzekoak ondo ilunak direla. Gaur egun, berriz, inongo kolore argi eta bizienekin koloretzatzen ditugu, berez elurrak zuriz margotzen dituen kale eta mendiak. Telebista ere zuri-beltzean zen orduan!

Arropekin jarraituz, praka motzetan daudenen erruki gara. Gaurko umeez udaran janzteko ere

hamaika aitzaki jartzen duten bitartean, ordukoek elurte garaian ere, inongo erreparurik gabe irteten ziren praka motzetan. Ikus dezagun zeintzuk diren neska-mutil kuadrila hau:

Aurreko iladatik hasita, ezkerretik eskuinera:

.... (Gizarajoari elur pelota bat jarri diote aurpegiari), Jose Luis Ajubita, Margarita Ajubita, Mari Karmen Azkue, Isabel Azkue, Jose Inazio Jauregi, Rikardo Mujika eta Jose Antonio Eugi.

Atzekoak:

Julian Azkue (denetarik altuena), Jose Jabier Arregi, Jose Angel Zubiaurre, Jose Luis Solas, Rikardo Gorriti, Juan Luis Arregi, Patxi Ajubita eta Bittor Zubiaurre.

**Fotero**  
OKINDEGIÀ  
OPILDEGIÀ  
San Frantzisko, 4  
Tel. 74 07 35

LANDA  
HARATEGIA  
San Frantzisko 23, Tel. 74 27 58

INTERIORES  
- SUKALDEAK ETA BAINU ALTZARIAK  
- ATE TOLESGARRIAK  
- BARRUKO ARMAIRUAK  
- DEKORAZIO GAIK  
Tel: 74 40 55 - 74 40 19.  
Errosario 15 Behea.

PUB  
elgoibar

# Zer iritzi daukazu abortoari buruz?

**Galdetu didate zer iritzi daukadan abortoaren eskubideari buruz eta ea alde ala kontra nagoen. Ez dut gehiegi pentsatu behar izan, alde bainago.**



**E**makumeak bere gorputzarekin zer egin erabakitzeke eskubidea du eta inork, ez du besterik erabakitzeko eskubiderik.

Gure gorputza erabat gurea delako, guri dago-gigu zer egin erabakitzea.

Abortoaren alde banago, ez da, irtenbide bakarra dela uste dudalako, izan ere, horretara heldu baino lehenago badaude beste bide batzuk.

Antisorgailu ezberdinen informazioa, arazo askoren soluzioa izan daitekeela pentsatzen dut, batez ere, gaztetxoengan, non gehienetan abortoa praktikatzea nahitaezkoa izaten baita.

Askotan heziketa arazoa gertatzen da, izan ere, gurasoei oso zaila egiten zaigu seme-alabekin sexuari buruz hitz egitea eta, ostrukarena eginenez, bakar-bakarrik arazoa azaltzean heltzen diogu zezenari adarretatik eta noski, beste erre-mediatorik ez dagoelako.

Orduan askoz zailagoa da denontzat, bada, askok bestela uste badu ere, abortua ez da inoren gustoko platera eta gutxiago emakumearentzat.

Ziur esango nuke emakume batek, besterik egin ezin duenean, abortatzen duela.

Duela denbora bat abortoaren kontrako manifestaldi bat ikusteko aukera izan nuen eta oraindik ere harriduraz ikusten ditut bertan entzun ahal izan nituen konsignak eta zeramatza-ten pankartak.

Abortatzen duen emakumea hiltzailatzat hartzen zuten, umekien argazki batzuk azaltzen zituzten bitartean.

Manifestariak pasatzen ikustean (gehiengoak gizonezkoak) gaurregun abortatzen jarraitu behar duten emakumeengan pentsatzen nuen, batipat, emakume gazteak, batzutan legez kanpo eta egoe-ra negargarrietan abortatu behar dutenengan. Une horretan ezin izan nuen begiratzen jarraitu eta buelta eman nuen.

Bukatzeko, uste dut emakume guztiok exijitu behar dugula legedi justuago bat guztiontzat eta, era berean, baita prebentzio neurri batzutan aurreratzea ere.

**Rosi Santamaria**  
(Erredakzioan itzulia)



**Badira zenbait galdera ilun, zeintzu egiten zaizkigunean guregan nolabaiteko frustrazioa sortzen baitute, bada, erantzuten duguna erantzuten dugula, beti geratuko gara nahiko gaizki ikusita, baita gurekiko ere. Nahiago genuke erantzun behar ez izatea.**

**G**aldera honen aurrean Jesus Mosterin filosofoaren hitzak nire egiten ditut: "bizitza-eskubidearen alde ala kontra zaude?". Bizitza-eskubidearen alde egotea erabakitzen badugu, gure baiezkoa erabiliko dute, abortoa eta eutanasiaren eskubidearen kontrako den karken bandoan jartzeko. Aurka gaudela esaten badugu, susmagarri gerta gaitezke instintu arriskutsu eta hiltzailak edukitzeaz.

Galderaren iluna eta erantzunen larria, hauek egiterakoan erabiltzen ditugun kontzeptu ulerzailak eta emotibitatearen balorapenean datza.

Bizitza eskubidea, bizitza bizi izateak merezi duen zirkunstantzia guztietan kontserbatzea dela ulertzen badut, denok egongo gara eskubide horren alde. Dena dela, galdera hau era ezberdinetan zehaz daiteke, hauetako batzuk onartezinak iruditzen zaizkidalarik. Horregatik ez dezaket esan abortoaren alde ala aurka nagoen, galdera

hain orokorki egiten denean.

Zenbait kasutan, guk geuk ere, ez genuke jakingo nola erantzungo genukeen, beraz, ez deza-kegu inor epaitu abortatzeko ekintzagatik. Errespetu osoa beharko litzateke izan besteon erabakientzat eta, abortoa anti-sorgailu bide bat bihur ez dadin, lana egin.

Sexua eta antisorkuntzari buruzko informazio hutsa bideratzeaz, ezin gara konformatu; umea hezitzeak izan behar du helburu, bai familia barruan, eskolan eta berari dagozkion esparru guztietan, sexualitatea pertsonarengan integra dadin.

Nahikoa da, abortoaren gaia eztabaidatzeaz eta sarriaskotan ikuspuntu ezberdinak alderatzeaz, inori eta ezeri laguntzen ez baitiote. Ordua da datozen belaunaldien heziketan lan egiteko, gerora aurkitu nahiko ez luketen abortoaren arazoa konpon dadin.

**Blanka Salegi**  
(Erredakzioan itzulia)

**E**TA ZURE USTEAZ?

**Zer iritzi daukazu abortoari buruz?**



**Mertxe Beristain**  
71 urte, etxekoandrea  
Gu lehengoak gara eta hori oso sagradua da. Neuk ez det nahi, grabea da. Orain gazteak pentsatu behar hori.



**Adrian Langara**  
26 urte, transportista  
Hobe da abortatzea, nahi ez den ume bat edukitzea baino. Familia langile batean problema izan leike eta neska gazte batetzat, betirako markatzea izan leike.



**Itziar Goñi**  
28 urte, irakaslea  
Bakoitzak erabaki behar du. Inork ezin dio inori ez abortatzeko esan. Bakoi-tzari zer egin erabakitzen laga behar zaio.



**Xabier Gorriti**  
23 urte, langabetua  
Kalean erantzuteko galde-ra errezegixa iruditzen zait, ze azken finean nik ez det edukiko problema hori. Ez det behin ere ganoraz planteatu.



**Elena Etxaniz**  
46 urte, etxekoandrea  
Hori bakoitzaren kontzientziaren araberakoa da. Nik neuk momentu honetan daukadan adinarekin ez det planteatzen ere.



**Arantxa Astiazaran**  
33 urte, klinika auxiliarra  
Ez naiz abortatzearen aldekoa. Abortoa ebitatzeko modu asko dago eta, gaur egun, informatzeko aukera daukagu. Abortatu aurretik jarri behar da erremedioa.



**OSASUNDEGIA**

- |                           |                          |
|---------------------------|--------------------------|
| 1- Alergologia            | 9- Ortodontzia           |
| 2- Kardiologia            | 10- Otorrinolaringologia |
| 3- Zirugia                | 11- Pediatria            |
| 4- Zirugia maxilo faziala | 12- Sikiatria            |
| 5- Dermatologia           | 13- Radiologia           |
| 6- Ginekologia            | 14- Traumatologia        |
| 7- Laborategia            | 15- Urologia             |
| 8- Barne medizina         |                          |

Urkizu Pasealekua, 11.  
(Orbeako Dorrea Lehenengo solairua).  
Tfnoak: (943) 12 02 00 - 12 02 04



**XIRULA**  
*Hanburgesia*


**Hanburgesak**  
**Sandwichak**  
**Saltxitxak**  
**Solomoa**  
**Txanpiak plantxan**  
**Bokatak**

Plaza txikia z/g Tel: 74 36 95



# Aspaldiko partez elurra berriz notizia

Dudaripe, denon ahotan egon den notizia elurtearena izan da. Larunbatean botatako txingorradaren ostean, igande goizak ez zigun gutxigorik ekarri. Ez ohizko gertaera izanda, kamara besapean hartu eta elurrak herritarroi sortarazi zizkigun gorabeherak argazkitan isladatu nahi izan genituen.



Errepide gehienak itxita gelditu ziren goizean goiz. Azkarateko errepidea, hiru egunez itxita egon ondoren, asteartean zabaldu zuten eta San Migeleko gaina, asteazken arte ezin izan zuten ireki. Igandean autopistan demaseko kamioi ilara sortu zen istripu baten ondorioz.



**karkizano**

San Franzisko 12-14, Tel. 74 05 49

**arrieta**  
modak

San Bartolome 18  
74 08 49



**JAVI** ITURGINTZA  
BEROGAILUAK

Iturgintza instalazioak

74 14 80

Erretxindi 1-4 B



Elurte honek erakutsi digun gauzetariko bat zera da: ez gaudela ezohizko fenomeno naturalei aurre egiteko behar bezala prestatuak. Igande goizean, askok kola egin behar izan zuten ogia jasotzeko.

Baserritarrek lan gogorra izan zuten atari pareko elurra kentzen. Kaleko elurra, besterik ezean, mangeraz garbitu behar izan zuten. Eskerrak elur-ekaitzak gugandik aldegin duen; bestela, batek daki!



Karakateko errepetidorea asteazken arte konpondu gabe egon zen, batek daki zergatik. Dirudienez, batzuk ez zuten telebistaren falta nabaritu lagunari elurrezko pelotak botatzen nahikoa lan baitzuten. Beste batzuk, ordea, telebistaren faltan, bideo dendak ia pelikularik gabe utzi zituzten.

## Aralar- Amezqueta trabesia antolatu du Morkaikok astebukaerarako


Morkaiko Mendizale Elkartek iganderako Aralar eta Amezqueta arteko trabesia antolatu du. Azkenaldian, Morkaikok egun bateko irte-naldiak, trabesiak izango direla erabaki du. Elgoibartarrek trabesiak egiteko duten zaletasuna handia da Morkaikoko kideen ustetan, baina kotxeetan ibiltzeak duen zailtasuna ikusita, autobusez egitea erabaki dute, azken honen abantailak aprobetxatuz.

Bestalde, astelehenean hasiko da Herriko Antzokian Felipe Uriarte eskalatzailaren diapositiba emanaldia. Bertan, Felipe Uriarte, Kantxenjunga, Sagarmatha eta Makalu mendietara igo zeneko diapositibak ikusi ahal izango dira.

## Parrokiko obrak

Jende asko galdezka ari dela eta, Parrokiak obretarako laguntza kontuak honako hauek direla gogorarazi nahi du: Kutxako 1019742.4 edo eta, Laboraleko bada, 007.0.70266.6.

## Zazpiki martxoak 10ean hasiko da berriz emititzen



Zazpiki Irratia otsaileko hilabetean zehar emititu gabe egon da, bertan egin diren berrikuntzak direla eta.

Hilabetean lokal konponketa eta ikutu teknikoak ematen aritu ondoren, asteazkenetik aurrera, ohizko saioak emititzeari ekingo diote FMko 107.6an. Programazioa asteazkenetik igandera bitartekoa izango da, astero 20 orduz emitituko dutelarik.

## Denbora pasa euskaraz

Udaleko Euskara Zerbitzuak euskararen erabilerara sustatzeko, haurrentzako taldeko ekintzak antolatu ditu martxoan eta apirilean zehar.

Martxoko larunbat goizetan, euskara ulertzeko gai diren 2. eta 3. mailako haurrek sukaldaritza praktikak, jokuak eta ibilaldiak egiteko aukera izango dute. Izena emateko epea martxoaren letik 5era izango da, larunbat goizeetako ekintzetarako. Larunbat honetan taldeko jolasak egingo dituzte Kultur Etxean.



Bestalde, Aste Santuko oporrak aprobetxatu nahian, lau egunetako egonaldia antolatu du Euskara Zerbitzuak Zarautzeko "Monte Albertia" udalekuan. Egonaldia apirilaren 8tik

11ra bitartekoa izango da OHoko 3. eta 4. mailako ikasleentzat. Izena eman nahi dutenek Kultur Etxeko Euskara Zerbitzuan egin ahal izango dute, martxoaren letik 31ra.

### ELENA

#### ileapaindegia

#### Depilazio Elektrikoa

San Franzisko 49-1 tel. 74 11 89

### MAITE

GOZOTEGIA

IZOZKIAK

Berton eginak

San Franzisko, 15  
Tel. 74 16 88



### HISPANIA



### ZURICH

#### C. Romera

Mota guztietako aseguroak eskaintzen dizkizuegu.

Artetale z/g behea. Elgoibar.

Tel: 74 07 52 - 74 29 08

# COLEGIO EL PILAR -ELGOIBAR



*Alaitasun eta itxaropenezko urteak  
eta 1993 ere bai... eta beti.*



# PILAR IKASTETXEA -ELGOIBAR

# "Bezeroek oso ondo onartu naute"

**Jema Jaiok hiru urte daramatza taxista modura lanean. Bera da taxiaren bolante aurrean jarri den lehenengo emakume elgoibartarra.**

**Lanpostu hau gizonezkoentzat bakarrik zela uste bagenuen ere, Jemak argi erakusten digu askotan usteak erdi ustel izaten direla.**

**-Jema, zela hasi zinen lanbide honetan?**

-Elgoibarko taxista batek utzitako lekua edo plaza hartu nuen. Nik, ordurarte, ez nuen lan finkorik euki, eta aukera hura ezin hobea iruditu zitzaidan lanpostu iraunkor bat lortzeko. Nire aitak asko lagundu zidan, bera ere taxista baita.

**-Bezeroak harritzen al dira bolantean emakume bat ikustean?**

-Egia esateko, bezeroek oso ondo tratatu naute. Sekula ez dut problema-rik euki. Lanean hasi eta lehenengo hilabeteetan izan nituen pare bat gertaera kurioso. Adibidez, behin gizon bat hurbildu zitzaidan kotxe hartako taxista non zegoen galde-tuz. Taxista, noski, ni nintzen. Hasieran, horrelako "sorpresak" edukitzea normala iruditzen zait, beti, edo ia beti gizonezkoak ikusi baititugu lanbide honetan.

**-Ezagutzen al dituzu taxistak diren beste emakume batzuk?**

-Bai, ez gara asko baina gero eta gehiago garelako esango nuke. Adibidez, Mendaron neska gazte bat ezagutzen dut eta Markinan eta Arrasaten, bi emakume heldu eza-



**"Behin gizon bat hurbildu zitzaidan kotxe hartako taxista non zegoen galde-tuz. Taxista, noski, neu nintzen".**

gutzen ditut.

**-Batziek uste dute gizonezkoek emakumeek baino hobeto gidatzen dutela...**

-Horrek ez dauka zentzurik. Garrantzitsuena pertsona da, eta ez emakumea edo gizonezkoa izatea. Diferentzia hori alde batera utzi eta kasu honetan kontutan hartu beharrekoa taxistaren gidatzeko era eta bezeroarekin daukan tratua da.

**-Zuregana jo duten emakumeek zer komentatzen dute?**

-Esan dudana bezala,

bidaiari guztiekin ondo konpondu naiz, baina are gehigo emakumeekin. Esperientziak erakutsi dit emakumeen artean beste komunikazio bat egoten dela. Konfidantzazko giroa sortzen da.

**-Zelakoa da taxisten lana?**

-Lanbide gogorra da; ematen duena baino gogorragoa. Gehienetan erlojuz kontra ibiltzen gara, prisaka alde batetik bestera. Errepidean beti dago arriskua, batez ere eguraldi txarra eta trafikoa handia dagoenean. Horre-

taz gain, ez daukagu ordutegi finkorik, edozein momentutan sor daiteke lana.

**-Asteko zein egunetan egoten da lan gehien?**

-Ez dago esaterik. Edozein egun izan daiteke ona edo txarra. Adibidez, gaur 500 kilometro egin ditzaket eta bihar, aldiz, 10 bakarrik.

**-Urteko zein sasoi izaten da zuentzat?**

-Ba, egia esan, ez dago diferentzia handiegirik. Behar bada udan lan gehiago izaten dugu; batez ere, inguruetako herrietan jaiak hasten direnean.

**-Zuek ere krisirik igartzen al duzue?**

-Bai, asko gainera. Lan gutxikin gabiltza. Egoera ekonomiko txarraren ondorioak denok igartzen ditugu.

**-Zein da lanbide honen alderdi txarrena?**

-Neretzako, dudarik gabe, errepideak daukan arriskua. Milaka kilometro egiten ditugu eta nahikoa da segundu gutxi batzuetako despistea istripua izateko.

**-Eta onena?**

-Bueno, lanpostu honetan jende eta leku asko ezagutzen ditugula.

**Aitor Zabaleta.**



## Begoña Mugerza

### *San Lazaroko administraria*



- Zein da zure lanbidea? -Zaharren Egoitzako administrazioa eramatea.
- Lana: debozioa ala zigorra?
- Beharrezkoa da lana. Baina, bueno, gehientan debozioa.
- Zer egiten duzu denbora librean?
- Irakurri edo musika entzun.
- Liburu bat eta musika klase bat?
- Orain "La ciudad de la alegría" irakurtzen ari naiz eta oso ondo dago. Musikan, klasikoa. Bereziki Albinoni, Bach, Beethoven, Mozart...
- Beharrezkoa al duzu okupaturik egotea ondo bizitzeko? - Bai.
- Lagunartea ala bakardadea? - Batzutan bakardadea, baina egokiena lagunartea da.
- Zer falta da Elgoibarren? - Gauza asko faltatuko dira, baina neretzat ezer ere ez. Lehen esaten zaben bezela "Munduan Elgoibar".
- Eta zer sobratzen da? - Ezer ere ez.
- Dantza ala kantua? - Dantza bai, baina lehenengo kantua.
- Emakumeen munduan zein izan da, zure ustez lorpenik nabarmentena? - Lanerako bidea zabaltea.
- Zein da zure iritzia "Emakume langilearen eguna"ren ospakizunari buruz? -Egun horiek ez dabe ezertarako balio. Hor izen bat jarri dabe, baina horregatik ez da ezer lortzen.
- Komedia ala drama? -Bixak.
- Zergatik euskara ikasten? -Momentuan beharrezkoa dot lanerako, "goitik" esan dabe euskara ikasi behar dala. Gure hizkuntza da, eta jakin egin behar da.
- Gozoa ala pikantea? -Pikantea.
- Gizakiarengan aurkitzen duzun akatsa? -"Deshumanizatzen" ari garela.
- Eta bertute bat? - Jendea zabalagoa da.
- Egindakoaren ala egingabearen damua nahiago? - Grabeagoa da egingabearena.
- Zein da zure "bizio izkutua"? - Fotografia. Ez dot asko egiten, baina asko gustatzen zait. Baita musika ere.
- Emakume izateagatik noizbait zailtasunik izan dozu? - Ez. Ez naiz gogoratzen behintzat.
- Zer egingo zenuke "lotoa" tokatuko balitzaizu? -Segun zenbat dan... seguraski banatu.

Agur Miren Barandiaran.

## BERTSOTAN

### Martxoak 8a

Aurtengoan ere heltzear dugu berriz Martxoak 8a mundu osoko emakumeon borroka egun nagusia besterik gabe hauxe da gure eskari ta aldarria gizonak eta emakumeak berdin garela onartzia

Hori lortzea ez da batere lan erraz eta sinplea eguneroko lana da eta horrek dakarkin nekea beraz borroka dezagun berdin egun, aste eta urtea bestela hutsal izango dira egun bateko trajeak.

Izaskun Elizburu

**Kopilan** FOTOKOPIAK  
PLANOAK  
ENKUADERNAKETAK

Ibaiarte Polig. Industriala, A-6 Tel. 74 35 51 - Fax publikoa 74 00 12

Richi Fleapaindegia

**KIROMASAIA**

- GERRIKO MINAK - ERREUMAK
- ZAINTIRATUAK - ARAZO MUSKULARRAK



Errosario 6 - 1 Tel. 74 30 11

## Urrezko bi domina eta zilarrezko bat Ibai Gimnasioko judokentzat

Pasa den otsailak 27an, Maialen Mora, Gorka Garate, Xabi Gonzalez, Andoni Atrio eta Zipri Migales judoek, guztiak Ibai Gimnasioko Judo taldekoak, Legazpiko III. Agirre Judo Txapelketan parte hartu zuten infantilen kategorian.

Emaitzak ezin hobeak izan ziren. Maialen Mora eta Gorka Garatek urrezko domina lortu zuten, beste guztiekiko nagusitasuna erakutsiz. Xabi Gonzalezek, berriz, ondo merezitako zilarrezko domina eskuratu zuen.

Bestetik, datorren martxoak 28an, beste judoka talde bat Andorranantz abiatuko da bigarren aldiz Andorrako Nazioarteko Txapelketan jokatzera. Pasa den urtean Ibai Gimnasiokoek urrezko hiru domina eta, zilarrezko eta brontzezko bana lortu zutela kontutan izanik, aurtengo emaitzak hobeagoak izango direlakoan daude.

## Deba Arroko Pilota Txapelketako emaitzak:

**-Infantiletan,** Txurruka-Balzola elgoibartarrek Laskurain-Garciaren aurka 18-4 galdu zuten.

**-Jubeniletan,** Calles-Aldazabal bikoteak Muguruza-Unamunoren aurka 22-11 irabazi zuten.

**-Seniorretan,** Ansola-Alzibarrek 22-13 irabazi zuten OrbeaII-Narbaizaren kontra.

Sabin Beristain:


## "Motorzaleak beti gaude laguntzeko prest"

**-Zein modalitatetan zabilta motokrosean?** -Enduro deritzona. Menditik motorrean egin behar den erregularitasun lasterketa da. Denbora baten epean etapa batzuk egin behar dira. Mendian eta errepidean burutzen da eta 170 edo 180 kilometroko ibilbidea bete behar izaten da. Kontrol batzuren bidez norberak egiten duen denbora neurtzen dute.

**-Espainiako txapelketan nola ibili zinen?** -Beno, ez naiz hobereena baina ezta txarreña ere. 1989 eta 1990. urteetan hartu nuen parte eta sei, zazpi edo zortzigarren postua atera izan dut. Nik "Kopa Trail" deritzona jokutzen dut, 500 cc-arteke motorrekin eta lau alditako motorearekin. Aurten, motorra aldatu beharra daukat, baina berria erosterik ez daukadanez nahiko zail ikusten dut..

**-Garestia al da motorra mantentzea?** -Garestia da ez daukagularako entitateren laguntzarik, esponsorizazio mailan esan nahi dut. Hobby bezala motorra edukitzea ondo dago, baina txapelketen munduan sartuz gero, motorra "mejoratu" egin behar da.

**-Ba al dago inguruan zirkuitorik?** -Ez. Enduro egiten dugunok mendian ibiltzen gara baina zirkuitoan entrenatzen dugu. Ondo legoke zirkuito bat izatea inguruan, baina guri ez zaigu interesatzen hori promozionatzea, ekologisten presioagatik ez liguketela-



ko zirkuitotik ateratzen utziko.

**-Mendizaleak oso kexu dira motorren zarata dela eta.** -Mendizaleen artean gurekiko oso zorrotzak direnak daude eta, motorzaleen artean ere jokabide txarrekoak daude. Menditik motorrean dabilen batek 30 segunduz izorratuko zaitu gehienez goiz osoan. Gu errepide eta pistetatik ibiltzen gara eta ez gara inoiz ere zelaietan sartzen. Gainera Elgoibarren motorrean ibiltzen garenok gure laguntza emateko prest egon izan gara beti. Edozein larrialditan, sute edo erreskateetan laguntzen ibili izan gara. Guk bideska guztiak ezagutzen ditugu eta motorra, gainera, beste edozer baino azkarragoa da.

• Adina: 38

• Kotxea ala motorra? Hobby bezala, motorra. • Zer du ,ba, motorrak? Azelerazio izugarria

• Eta txarreña? kolpeak

• Istripurik? Garrantzirik gabeko erorketak.



*Eskulanean  
saiatzzen gara*

*Pastelak  
Tartak  
Izozkiak  
Bouboiak*

**GOZOTEGIA**

San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45

# URZELAI

## ELEKTRIZITATEA-ARGIGINTZA

Santa Ana, 12-14 - Tel. 74 13 76 Elgoibar

# Kiroldegiak ezin du zerbitzu gehiago eskaini espazio ezagatik

Aurtengo irailean, Olaizaga kiroldegiak bost urte beteko ditu zabaldu zenetik.

Gaurregun 1.200 bazkide fitxa ditu baina erabiltzaileak 3.400 bat izango dira. Ohizko zerbitzuez gain, ikastaroak ere ematen dira bertan eta, gero eta gehiago, espazio faltak zenbait ekintza burutu ahal izatea oztopatzen du.

**K**iroldegiko bazkide eginez gero, igerilekua, muskulazio

gela eta azken pisuko terraza erabil daitezke; bestela, sarrera ordaindu behar da. Nagusiek 500 pezeta ordaindu behar izaten dute eta gazteek 300 pezeta. Ikastaroek, sauna, masaia, hidromasaia eta hauekin lotutako zerbitzuek, ordea, prezio ezberdina dute bazkide direnentzat eta ez direnentzat. Frontoia, squash eta squash aurreko frontoi txikia erabiltzeko, sarreraz gain, zerbait ordaindu behar da, bazkide izan edo ez izan prezioa berdina delarik.

Kiroldegiko arduradunak, Elgoibarko ekonomi


egoera txarra ikusita, langabetu eta 3. adinekoentzat prezioak jeisteko aukera ikertzen ari dira. Duela bi urte jadanik proposatu zioten hori Udalari eta kiroldegia gestionatzen duen enpresari baina oraindik ez dute inolako erabakirik hartu.

Kiroldegia urte osoan zehar dago zabalik, jaiegun jakinetan eta abuztuan ezik. Abuztuan istearren arrazoia, batetik, legez, hamabost egunez itxita egon behar izatea da, igerilekuko ura aldatu ahal izateko. Bestetik, lehendabiziko urtean

abuztuaren azken hamabostaldian zabalik izan zuten eta oso jende gutxi zebilela ikusita, aurrerantzean hilabete osoan istea erabaki zuten. Abuztuko itxialdiaren hutsunea nolabait betetzeko, uztailan zehar ordutegia luzatu egiten dute.

Kirol eskola ezberdi-

nek, karate eskola, igeriketa eskola, pilota eskola etabarrek ere kiroldegia erabiltzen dute beraien klase eta entrenamenduetarako. Momentu honetan, muskulazio gela handitu nahian dabilta, baina espazio faltak hainbat asmo gauzatu ahal izatea oztopatzen du.



↳ Bazkide eginez gero, igerilekua, muskulazio gela eta terraza erabil daitezke.

## KIROLDEGIKO BAZKIDE MOTAK:

- Banakakoa:** Bertokoa: 9.160 pezeta  
Kanpokoa: 10.980 pezeta
- Familiarra:** Bertokoa: 16.970 pezeta  
Kanpokoa: 20.120 pezeta

\*Urte osoko prezioak dira. Hiru hilabete pasatzen diren bakoitzean prezioak laurden bat merkeago dira.



**Mandiola S.L. Egurrak**

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA  
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 17 10 42



**Iraegui**

**ERROTULAZIOA**

☎ 74 39 52  
San Antolin 74 37 06

# Kalamua elkartekoak, herri kiroleetan zaletuak

**Kalamua elkarteko kide izateko San Migel auzokoa izan behar da. Soziedadea, auzoko eskola zen lehenago. Jangela, ikasgela bat zen eta sukaldea, berriz, eskola haurrentzako komedorea. Baina eskola itxi eta haurrak kaleko eskoletara joaten hasi zirenean lokala hutsik gelditu zen. San Migeleko auzokideek berau soziedadea egiteko leku aproposa zela pentsatu zuten.**

**E**lgoibarren kuadrilek elkarteak zituztela eta, San Migelko auzokideek ere elkartzeko eta afariak egiteko leku bat eduki nahi zuten. Horrela norbaiti ideia bururatu zitzaion eta etxe guztietara eskutitz bat bidali zuten beraien baimena jasotzeko. izan ere, soziedadea auzoko eskola zen eta guztien baimena behar hura egiteko.

Hasierako 19 bazkideek dirukopuru bat jarri zuten hileroko, lokalak behar zituen berrikuntza guztiak egiteko. Bi urtez, gutxi gora behera, egon ziren dirua botatzen, 1975eko irailean soziedadea estreinatu zuten arte.

Edadez nagusia, ohorezko bazkide egin zuten auzoko bat da. Bertako bazkide ez izan

arren edozer gauzatarako laguntasuna emateko prest zegoen beti eta jubilatuen ondoren ohorezko bazkide izendatu zuten.

Kalamua elkartekoak harro daude, beraiek diotenez, inguruko jai onenak antolatzeaz. Urtean birritan egiten dira jaiak San Migel auzoan. San Antoniotan auzokoen arteko bazkaria prestatzen da eta, San Migeletan, ordea, jaiak bost egunez luzatzen dira. Elkarte bezala, jaiak antolatzen laguntzen dute: idi probak, harrijasotzaileak, aizkolariak, bertsolariak... Milioi t'erdiko aurrekontua izaten dute jaietarako eta 60 bat pertsona ibiltzen da jaietako komisioan dena prestatzen. Errifak salduz, etxerik-etxe dirua batuz eta



↳ (1978) Kalamua elkartekoak sukaldaritza txapelketan.

tabernan lan eginez, besteak beste, lortzen dute dirukopuru hori zuritzea.

Emakumerik ez dago elkartean baina, halere, auzoko lokal bat erabiltzen dute beraien gauzatarako, elkarte modura funtzionatzen ez badute ere.

Herri kirolekiko duten zaletasuna nabaria da elkarteko hormetan zintzililik dituzten argazkiek

erakusten duten bezala. San Bartolome jaietan herri kirolak antolatzen laguntzen dute. Bertso afariak ere egin izan dira bertan eta auzoan bolo ekipoa ere badute.

Igandetan elkarteak, auzoan aspaldi itxi ziren bi tabernen hutsunea betetzen du eta hileroko bi pertsona barraz eta saldak zerbitzeaz arduratzen dira.

## Berdura Menestra

**Osagaiak:** Ilarrak, Bruselako azak, bertoko bañak, eskarolak, alkatxofak, espinakak, azenarioak, txanpiak, olio, gatza, hirin piska bat, tomatea eta okela salda. Apaintzeko, arraultza egosia, urdaiazpikoa eta esparragoak.

**Nola egin:** Berdura guztiak bakoitza bere aldetik egosi. Ura kendu eta lurrezko kazuela batean, kipula txiki-

tua oliotan jarri, kolorea hartu arte. Berdura guztiak bertara bota.

Aparte, salda egiten da. Tomate naturala oliotan egiten eduki (kipula eta hirinarekin) eta okela salda edo estarluxa gehitu. Egosten eduki.

Aurretik egositako berdurei tomatea gainetik bota eta ordu erdiz egosi. Urdaiazpiko gordina zati txikietan zatitu eta esparragu eta arraultza egoziarekian menestra apaindu.

## FITXA TEKNIKOA

**Sorrera urtea:** 1975  
**Bazkide kopurua:** 28  
**Berezitasuna:**  
 Herri kirolak  
**Presidentea:** Jabier Arrizabalaga "Ziarda"  
**Urteko kuota:** 12.000  
**Helbidea:**  
 San Migel 34

# Hiru artista bergararren lanak Elgoibarren



**Jabier Ugalde, German Amurrio eta Mariasun Akizu bergarakoak dira. Kuriosoa bada ere, hiruek dute 29 urte eta, hiruek buztinezko eskulturak egiten dituzte. Beraien artelanak ikusgai daude Kultur Etxeko erakustaretoan datorren ostirala arte.**


**J**abier, German eta Mariasunek buztin urtuezina (temperatura egosten dena) erabiltzen dute, edozein forma eta itxura lortzeko aukera ematen baitu. Buztinaz gain, Mariasunek soka eta argizaria erabiltzen ditu eskulturak apaintzeko.

zerbaitetan oinarritzen badira ere, forma ematera-koan figurazioa eta abstrakzioa nahastu egiten ditu.

Eskultura afizio dute; bertatik bizitza ezinezkoa iruditzen zaie. Eskulturaren mundua oso gogorra da beraien esanetan. Pintura eta beste arte batzuk errotuagoak daude gure herrian eta gainera, erakustareto guztietan, argia, kokalekua eta alde tekniko guztia orokorrean, argazkiei begira antolatua dago. Hiru bergar gazte hauek Deba bailaran ibili dira erakustaketak egiten, gehienetan hiruak batera. Etorkizunera begira, hiriburuetako erakustareto handietan egitea gustatuko litzaieke.

Germanek formak lantzen ditu, figurazio konposizio ezberdinak bilatuz. Gizaki buruak moztuz, efektu bisuala lortzen du.

Jabierren lanak, abstrakzioak dira batez ere. Testura ezberdinez baliatuz burdina eta fundizioaren ideia isladatzen du. Mariasunek, ordea, figurazioa eta abstrakzioa mahasten ditu. Bere lanak



Goian hiru bergararrak eta behean Germanen eskultura.

**Mariasun Akizu:** Bergarako baina Elgoibarrera ezkondua dago. Orain langabezian dago. Bere eskulturetan agertzen diren elementuak: soka eta argizaria. 29 urte ditu.

**Jabier Ugalde:** 29 urte. Abstrakzio lanak egiten ditu. Eskultura afizioa da eta labadora lantegi batean lan egiten du. Eskulturaz aparte, marrazkiak egitea atsegin du

**German Ugalde:** Argakilaritza ere gogoko du. 29 urte ditu. "Altos Hornos"eko langilea da. Bere eskulturetan formak lantzen ditu. Efektu bisuala da bere lanen funtsa.

**JOSE ANGEL ZABALA**  
**URDAITEGIA**  
Berezitasunak:  
Bakilaua  
Txerrikiak  
Merkatu Plaza 33-34

 **DEBA GARAIA**  
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA  
Rosario 34, 1 ezk. Elgoibar  
Tel: 74 42 83 Fax: 74 42 53

  
Autoedizio eta Diseinu Grafikoa  
**Zubiaurre**  
Sta. Klara 40-3. Tel: 744444.

## 6 Larunbata

**10,00 DENBORA PASA EUSKARAZ**

Taldekako jolasak O.H.O.ko 2. eta 3. mailakoentzat.

**19,30 ZINEA**

"Asunto de mujeres"

Zuzendaria: Claude Chabrol  
Aktoreak: Isabelle Huppert, Francois Cluzet.

### Z I N E A

"Asunto de mujeres"

Naziek okupatutako Frantzia, Marie, 30 urteko ama batek, bere auzokide bati abortatzen laguntzen dio. Garai latzak direla eta, Marie, eskeintzen dituen zerbitzuak kobratzen hasten da eta ondoren, negozioa zabaltzekotan emagalduei gelak alokatzen dizkie. "Asunto de mujeres" hipokresia sozialaren analisia da, miseria moral eta Vichyko Frantziaren doilortasunaren analisi zorrotza.

### Z I N E A

## 7 Igandea

**8,00 ARALAR-AMEZKETA TRABESIA**

Irteera: Sigmako zubitik

**16,30 ZINEA**

"El Señor de las bestias"

**19,30 ZINEA**

"Asunto de mujeres"

## 8 Astelehena

**12,00 ZINEA**

"Asunto de mujeres" (Doan)

**19,30 FELIPE URIARTEREN DIAPOSITIBA EMANALDIA**

Gaiak: Kantxenjunga  
Inkeen Herrian  
Sagarmatha  
Ganges  
Makalu.

Tokia: Herriko Antzokia

ASTELEHENETIK OSTIRALERA,  
ORDU ETA TOKI BEREAN.

## 16. Antzerki Jardunaldiak

- Larunbata 6  
**Gasteiz Antzerkia**, "Bakartasunean".
- Astelehena 8  
**Teatro del Alba**, "Yerma".
- Asteartea 9  
**Paco Obregon**, "Estrategia para dos jamones".
- Asteazkena 10  
**Traspasos Danza**, "Sísifo".
- Ostirala 12  
**Karraka**, "Hoy última función".

\* Funtzio guztiak Eibarko Unibertsitate Laboraleko Antzertokian izango dira gaueko **8,30etan**.

Eibar  
Eibar

## OTSAILEAN

### JAIOTAKOAK

**Garazi Ansola Osa,**  
otsailak 1  
**Alba Ortega Lopez,**  
otsailak 8an  
**Ivan Zapata Ferrero,**  
otsailak 10  
**Ane Iñiguez Iruretagoiena,**  
otsailak 17an  
**Ane Urain Miranda,**  
otsailak 23an  
**Maite Bollar Zabaleta**  
otsailak 27an

### HILDAKOAK

**Ramon Zubiaurre Urkiri**  
otsailak 1 (70 urte)  
**Maria Lourdes Ansola Egia**  
otsailak 1 (69 urte)  
**Antonio Blanco Carrillo**  
otsailak 7 (71 urte)  
**Jose Maria Gabilondo Unzueta**  
otsailak 11 (71 urte)  
**Felix Izagirre Igartua**  
otsailak 14 (83 urte)  
**Eugenio Galarraga Barrenetxea**  
otsailak 16 (70 urte)  
**Marcelino Elustondo Amillategi**  
otsailak 18 (85 urte)  
**Jorge Unzueta Elorza**  
otsailak 18 (89 urte)  
**Rufina Dominga Urreta Garate**  
otsailak 23 (85 urte)  
**Julian Arrillaga Irusta**  
otsailak 24 (82 urte)

### TXANDAK

#### FARMAZIAK:

6, larunbata: **ETXEBERRIA**  
7, igandea: **ETXEBERRIA**  
8, astelehena: **YUDEGO**  
9, asteartea: **YUDEGO**  
10, asteazkena: **YUDEGO**  
11, osteguna: **YUDEGO**  
12, ostirala: **ORMAZABAL**

#### OKINDEGIAK:

7, igandea: **ZABAETA**



**Etxebizitzak**

**Lana**

**Salerošketak**

Organu HAMOND bat. 8 baxu, bi teklatu eta sekzio ritmikoduna. 50.000 pzta.  
**Alberto: 74 14 94**

**Galdutakoak**

Arte ederretako ikasleak (2. maila) GEOMETRIA irakasle bat behar du. Maila altua.  
**Carolina 74 44 51.**

"Asolo Super-soft" (42zkb.) botak eta "Softex" txamarra saltzen dut. Prezioaz hitzegiteko,  
**Aritza 74 05 90.**

Nintendo Kontsola bat saltzen dut. AUKERA!!  
**Tel: 74 23 27**

Duela bi hilabete Samsung AF-200 kamara automatikoa galdu nuen Madarixa inguruan.  
**Inork aurkitu izan balu, deitu mesedez 74 02 09**

Aste bukaeratan lan egiteko ileapaintzaile edo **pelukera bat behar dut.**  
**Tel: 75 51 01. Lan orduetan deitu.**

Bizikleta bat saltzen dut. BH 12 "Kanbio"duna. Prezioa negoziatzeko.  
**Tel: 945-28 94 81**  
**Deitu 8etatik aurrera.**

**Kontaktuak**

Izarraitzen, hilak 25 ostegunean poltsa granate bat galdu nuen. Barruan historia liburu bat eta betaurrekoak zeuden.  
**Tel. 74 44 51 Carolina Sanchez.**

Ingeniero industrialak **matematika, fisika eta kimikako klaseak** ematen ditu BUP, COU eta FP. Gaztelaniaz.  
**Tel.: 74 13 11. Javier**

BUTANOZKO SUKALDEA salgai. 3 su eta labea. Horrekin batera, zenbait altzari osagarri oparitu genuke: aulkia, apala, etab...  
**Gauzez: 74 14 25**

Elgoibarri buruzko liburu, argazki, errebista zahar zein berri baldin baduzu, elgoiBARREN astekarikok gogoz jasoko genuke geure artxiborako. **Deitu edo eta ekarri gure bulegora. Tel: 74 41 12**

Delineante langabetuak orduka edo jornada osoan lan egingo luke.  
**Deitu 74 34 01 telefonora. Iñaki.**

Gimnasia egiteko tresna saltzen dut. Muskuloak eta hankak indartzeko oso egokia. Prezioa negoziatzeko.  
**Aitor: 74 23 27 Egun osoz.**

Musika egiten duen lagun talde bat gara. Lokalen bat alokatu nahi genuke entsaiuak egiteko. Alokatzeko moduan **lokalik baldin baduzu deitu 74 33 66 telefonora eta Josurengatik galdetu.**

ZODIAK bat saltzen dut. Yamaha, 5 zalditako motorra. Neurriak: 3 x 1. Prezioa: 125.000 pta.  
**Tel.: 19 92 46 (Juanra)**



Orrialde honetako iragarkiak doan dira.  
Testua idatzi eta bidali elgoiBARREnera.

TESTUA.....

Ubitarte 4 behea, 20870 Elgoibar tel.: 74 16 26



**24 orduz zuekin**


Arrate ☒ 212 (20.600) Eibar  
☎ 12 01 61/73 Fax 12 01 73

**GURBIL** *Jatetxea*

- Pintxoak - Eguneroko menua
- Karta - Plater konbinatuak

**Orain probatu etxean egindako PIZZAK**

Isasi, 1 - Tel. 11 11 52 Eibar



**G<sup>W</sup>OLF berria:** Kotxe honetaz asko idatzi da.

**Autorik Seguruena**

**Urteko autoa European**

**Zatoz eta GOLF batekin irtengo zara.**

**Autos Eibar, S.A.**



Otaola hiribidea, 17. Tel. 11 36 42 / 11 00 90 EIBAR